

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Europako Lindus2 proiektuari amaiera eman zaio Auritzen

*Hegaztien migrazioa eta aldaketa klimatikoa jorratu dituzte jardunaldian hainbat adituk*

Asteartea, 2018.eko azaroak 27

POCTEFA Lindus 2 mugaz bestaldeko lankidetzaproiektuan, Mendebaldeko Pirinioetan zehar hegazti migratzaileen azterketa egiten da, eta, gaur, amaiera eman zaio Auritz herriko Kultur Etxean egin den jardunaldiarekin. Lindus 2 2016tik 2018ra bitartean gauzatu da, eta Nafarroako Gobernuak horren garapenean



Hegaztien behaketa. (Argazkiaren egilea: Lindus2)

parte hartu du [GAN-NIK](#) enpresa publikoaren bitartez. Halaber, proiektuan honako hauek hartu dute parte: [Auritzeko Udala](#), proiektuaren lider moduan; [Ornitologiako Espainiako Elkarte \(SEO/BirdLife\)](#) eta Ligue pour la Protection de Oiseaux (LPO-Aquitaine), bazkide moduan; eta [Cederna Garalur](#) erakunde elkartu gisa.

Hegazti migratzaileak aztertzeaz gain, Lindus 2 proiektuaren helburuak dira kiropteroak (saguzarrak) monitorizatzea, boluntariotza lantzea, ingurumen-arloan hezte eta inguruneko ekoturismoa bultzatzea.

Proiektuari amaiera emateko jardunaldia goizean zehar egin da, eta bertan izan dira proiektuaren barneko erakunde bazkideetako ordezkariak, finantzatzen duten erakundeetako ordezkariak eta Garrantzako Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleak.

Bazkideek migrazio, ingurumen-hezkuntza, boluntariotza, prestakuntza, komunikazio eta ekoturismo arloetan proiektuaren barnean egindako azterketak azaltzeaz gain, ondorioak eta balorazioak partekatu dituzte. Zehazki, Ana Bermejo biologoa eta hegaztietan aditua Migrazioa eta aldaketa klimatikoaz aritu da, eta Idoia Arauzok eta Juan Terrádezek, [Aldaketa Klimatikoaren Pirinioetako Behatokiko \(OPCC\)](#) koordinatzaileak eta ikerlariak, Pirinioetan aldaketa klimatikoaren inpaktua gaia garatu dute. Jardunaldian zehar, bertara hurbildutakoek "La Montaña Vasca, entre el cielo y la tierra / Euskal Mendia, zeru-lurren artean" erakusketa ere bisitatu dute; hots, migrazio-fenomenoari, hegazti migratzaileei eta Pirinioetako migrazioaren azterketari buruzkoa.

**Lindus 2: mugaz haraindiko lankidetz, ornitologia,**

## **boluntarioria eta ekoturismoa**

POCTEFA Lindus 2 mugaz bestaldeko proiektuaren alderdi nabarmenen artean aipatu behar da mugaz haraindiko erakundeek garapen osoan zehar batera lan egiteko aukera eman duela.

Lindus igarotzerakoan, urtero Pirinioak Europako hegazti migratzaileen %90ak igarotzen dituela uste da. Hori dela-eta, Lindus 2 proiektuan bereziki landu da hegazti migratzaileen zenbaketaren sistematizazioa, aldaketa klimatikoaren gaineko adierazle gisa betetzen duten paper garrantzitsua sakondu ahal izanaz. Gainera, ingurumen-arloko boluntario-taldeak garatu ahal izan dira, eta, horrela, hegazti migratzaileen azterketan gero eta gehiago inplikatzin dira urtaro bakoitzean. Azkenik, ornitologiarekiko interesa gero eta handiagoa denez, ingurunean kalitatezko ekoturismoa garatzen laguntzen du horrek, Pirinioetako herrien garapena eta ekonomia bultzatuz.

Lindus 2 proiektuaren %65a Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzen du Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bitartez ([POCTEFA 2014-2020](#)). POCTEFAren helburua da Espainia-Frantzia-Andorra mugako zonako integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea. Laguntzaren bidez, mugaz haraindiko jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak garatu nahi dira, lurralde-garapen iraunkorraren aldeko baterako estrategiak jorratuz.